

# iruner

197. zenbakia. 2011ko abuztua



## Euskal Jira 2011



Mikel Alonso  
sukaldari  
irundarra,  
Mexikon  
arrakastatsu



Roberto Olabe,  
Real Unionen  
zaletuengan grina  
pizteko lanean



# SURF TIME

**Txingudi TBen Mario Azurzak aurkeztua  
Asteazkenero 22:00etan**

Errepikapenak: Astelehenetan, ostiraletan eta igandetan, 23:00etan.



# Olatu Gainean

**Asteartero 21:00etan, Txingudi TBn, estropada  
sasoaren inguruko berri guztiak.**

Errepikapenak: Asteazkenetan, 15:30ean. Ostegunetan eta ostiraletan 21:00etan



# Laguntzaileak



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

## irunero

**Helbidea:** Salis hiribidea, 21 - behea. 20304 IRUN. Tel: 943 63 18 78.

Faxa: 943 63 18 77

[irunero@infotxingudi.com](mailto:irunero@infotxingudi.com)

[www.infotxingudi.com](http://www.infotxingudi.com)

**Argitaratzailea:** TB S.L.

**Erredakzioa**

**maketazioa:** Ana Grijalba.

**Kolaboratzailea:**

Mikel Asurmendi

**Zuzentzailea:**

Xabier Kerexeta.

**Inprimategia:** Antza

**Tirada:** 3.500 ale

**Lege gordailua:** SS-230-94

**ISSN:** 1134-0606

## Aurkibidea

### 4.- *Lapikoan*

- SensIrun, turismoa eta merkataritza uztartzen dituen ibilbidea
- Mikel Alonso sukaldari irundarra, Mexikon arrakastatsu
- Bidasoafolk, abuztuaren 19tik 21era
- Zorrotzailea: langile nomada

### 12.- *Kirolak.*

- Roberto Olabe, Real Unionekeo entrenatzaile berria

### 15.- *Euskal Jirako argazkiak*

### 19.- *Bi hitzetan:* Berri laburrak.

### 24.- *Kuttun gabinete psikopedagogikoa*

Frustrazioa (II. atala).

### 26.- *Eleak iruten.*

### 27.- *Lerroz lerro.* Joxemiel Bidador *Hutseaniko hazkurria*

### 28.- *Kultur Agenda:*

### 30.- *Gazte Informazioa*

# *Sens*lrun: ezagutu, erosi eta sentitu bost zentzumenekin



Tomas Maeztu MUGANeko kudeatzailea, Brasil gozotegiko Koldo Salinas, Maite Cruzado Merkataritza Txikiko udal ordezkaria, Ola sagardotegiko Iñaki Bengoetxea, Goizane Alvarez Bidasoa Bizirik-eko presidentea, eta Javier Garcia Funez Espainiako kafegileen txapelduna, kafe aleak erakusten.

*Irun Sens* jarduera berritzailea da, turismoa eta merkataritza uztartzen dituen ibilbidea, bost zentzumenen bidez gozatuz. Irungo Udalak bertakoei nahiz kanpotarrei zuzendutako esperientzia abuztuaren 30era arte egingo da.

“Erostea, ezagutzea eta bost zentzumenekin sentitzea. Horixe da Irunen egiten dugun proposamenaren helburua Irun Sens merkataritza ibilbidearekin”, azaldu zuen Maite Cruzado Merkataritza Txikiko udal ordezkariak aurkezpen ekitaldian. Irun Sens ekimenak

parte-hartzaileei asteartero eta ostiralero, bi orduz, ibilbide bat eskaintzen die hirian zehar, bost establezimendutan prestatu diren eta bost zentzumenekin lotuta dauden bost esperientziarekin batera. Gidari turistiko baten eskutik burutzen da, zeinak dendetatik igarotzean hiria-

ren inguruko zehaztapenak ematen dituen, den-dei eta historia zein kultur ondareari buruz. Goizane Alvarez Bidasoa Bizirik-eko presidentearen esanetan, “Turismoa beste modu batez egin nahi dugu: gure bisitarien bost zentzumenak aktibatuz eta esperientzia atseginen parte-hartzaile bihurtuz, hain zuzen ere hemendik pasatu eta gure hiria esperientzia atseginekin lotzea nahi genuke”.

### Bost denda, bost zentzumen

Eskoleta karrikako Ekoleku denda ekologikoa da abiapuntua. Bertan, usaimenarekin lotutako esperientzia eskaintzen du Javier Garcia Funezek, Espainiako kafegileen txapeldun hiru aldiz izan denak. Kafean aditua den irundarrak kafe dastaketa prestatzen du.

Ibilbidean zehar Irungo Udaletxeaz, San Juan Harriaz eta Santiago bideaz hitz egiten du gidariak. Elkar liburudendan bigarren geldiunea egiten da, entzumenaren gaineko ekintza bizitzeko. Bisitariak txalaparta joko dute; horrela, sentsazioa bizi ahalko dute, pantaila batean agertuko diren bideoen laguntzaz.

Bidea Luis Mariano lorategietara abiatzen da ondoren, non tenore irundarraren historiaren berri ematen den. Uhingain surf dendan hirugarren geltokia egiten da, ukimenaren esperientziak gozatzeko xedez. Ehundura ardatz du eta bideo emanaldi baten laguntzaz garatzen da.

San Migel auzorantz abiatzen da jarraian bisitari taldea, trenbidearen historia eta Plaiaundiko parke ekologikoa hizpide izaki. Bertako komertzioaren eredu bertatik bertara ezagututakoan, Brasil gozotegiko Koldo Salinas maisu txokolategileak bere lantegiko atea zabaltzen ditu, bonboi ospetsuak nola egiten diren erakusteko: ikusmen-bizipenetik dastamenenara. Ibilbidea Mercairumen amaitzen da, bakailao eta sagardo dastaketa eginez. Horrekin batera, hiriko ostalariak parte hartzen duten Irun Dastatu ekimenarekin lotutako eskaintza gastronomikoa azaltzen zaie bisitariari.

Bukatzeko, parte-hartzaileek San Juan inguruko tabernetan pintxo batzuez gozatzeko aukera



### Nola parte hartu

- Astean 2 egunetan, astearte eta ostiraletan.
- 10:30etik 12:30era (frantsesez) eta 17:19:00etara (euskaraz/gaztelaniaz)
- Abuztuaren 30era arte.
- Izen-ematea: Luis Marianoko Turismo Bulegoan: 943 02 07 32
- Prezioa: 3 euro.

dute; horrez gain, dendetako produktuez betetako saski batzuen zozketan sartzen dira.

Mikel Alonso, sukaldaria

## “Bidasoarrak gastronomia kontuetan exijenteak dira”

Luis Irizarren eskolako beka bati esker, Mexikora sei hilabetez lan egitera joateko hegaldia hartu zuen irundarrak. Lur hartu orduko, sustraitzen hasia zen. Juan Mari Arzaken eskutik Tezka ospetsuan gorantz abiatu zen. 2006an Bruno Oteiza donostiarrarekin ireki zuen Biko jatetxea munduko 50 onenen artean kokatu da aurten. Euskal-aztekar sukaldaritzak zerua haztatu du.



- Sanmartzialetan Irunen egon zinen proiektu bat burutzeko. Zertan datza?

Sukaldaritzari buruzko gaiak soilik jorratzen dituen *El Gourmet* izeneko argentinar telebistakanal baten proiektua da. Latinoamerika osoan hedatzen den itzal handiko kanal hau kostaldeko Santiago bidean zehar programa gastronomiko sorta bat grabatzen ari da. Nik aurkezle lana egiten dut. Ekainaren 30ean Irunen ekin genion grabaketari eta Santiagon bukatu dugu santuaren egunean.

- Zein izan da Irunen egindako erreportajearen edukia?

Jaien testuinguruan alderdi gastronomikoa islatu genuen. Goizeko alardearen ondoren Zabaltzako taberna batean hamaiketako hartu genuen, ohitura hori erakusteko. Gero, gurasoen etxean, amarekin txapiroiak sukaldatu nituen. Hondarribiko Arraunlari jatetxean ere ibili ginen, Mexikora joan aurretik hango sukaldari izan bainintzen.

- Orain dela 14 urte Mexikora joan zinen. Zer aldatu da Bidasoako eskaintza gastronomikoan?

Oraindik ere produktuan oinarritutako gastronomia da. Sekula aldatu behar ez lukeen ezaugarria da hori, jateko modurik onena delako. Seinale ona da Bidasoara etortzen naizenean betiko jatetxeek irekita jarraitzen dutela ikustea. Bidasoarrak exijenteak dira.

- Bidasoatik zer eraman zenuen?

Nire familiarengandik pertsona ona izateko beharrezko balioak jaso nituen. Bidasoan gauzak taxuz egiten ikasi nuen, eta horixe eraman nuen. Gerora maisu izan nuen Luis Irizarren ikasbidearen bizkar-hezurra balioetan oinarritzen zen: garbitasuna, produktua eta lankideetako harremanak, nagusiki. Sukaldatzen ikas dai-teke; baina proiektu bat taldean aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoak dira balioak.

- Mexikora sei hilabeterako joan zinen,



Arrain karbonatua, Mikel Alonsoren plateretako bat.

baina han geratu zinen. Zerk harrapatu zintuen?

Hango usainek eta jendearen izaera abegikorrrak. Profesional onak daude. Han ezkondu eta sema-alabak eduki nituen.

- Biko munduko jatetxe onenen artean 49.a da, eta Mexikoko lehena,

Restaurant aldizkariaren iritiz. Zein izan da giltzarria?

Duela 10 urte produktuetan eta ukidura eta zapore berriko menuetan Mexikoko aintzindariak izan ginen. Baina gure lana ez zen ongi ulertzen. Ereiten ibili garela eta orain uzta biltzen ari garela esan liteke: sukaldaritzaren gorakada bizi dugu gaur egun. Europan teknika nahiz produktu berriei pixka bat aspertuak dauden honetan, mundua Mexikori erreparatzen hasi zaio.

- Arzakek Mexikoko Tezka jatetxe ospetsuko sukaldariburu izateko hautatu zintuen. Nolako harremana duzu?

Duela bost urte Tezka utzi zuen, baina harremana mantendu dugu eta etortzen naizenean Arzaki bisita egiten saiatzen naiz. Oraingoan ere, programaren grabaketan parte hartu du. Nik oso maite dut. Bruno Oteizari eta bioi hegoak jarri zizkigun; alegia, aske izaten irakatsi zigun. Berak esaten zigun garrantzikoena produktu zein teknika onak izatea dela, beti ere identitatez bilduak. Baina, horretaz gain, askatasuna behar da. Beraz, arrakasta erdiesteko, sukaldaria jatetxearen jabe izatea giltzarri da.

# Munduko folk musika, Bidasoan entzungai

Bidasoafolk jaialdia Txingudiko hiru hirietako udako kultur ekintzarik nagusietako bat da. Aurten talde nabarmenenak dira Vieux Farka Toure afrikarra, iberiar musikako Coetus eta Macka

B & The Roots Ragga Band britaniar reggae joleak.



BidasoFolk-en hamaikagarren edizioa musika akustikoaren, etnikoaren eta garaikidearen zaleentzako topagunea izango da. Irun, Hondarribia eta Hendaia folk musikaren panoramako artista ospetsuen agertoki bilakatuko dira hiru egunez, Bidasoa Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak antolatu duen kultur jarduera honi esker.

Aurtengo jaialdia “2011, Pirinioen urtea” proiektuaren parte izango da. Ekimen horren helburua mendikateko kultur eta kirol ekital-

diak Europan sustatzea izaki, Bidasoafolk-en berri komunikazio-proiektu zabal baten bidez emango da.

Partzuergoak jaialdi “abangoardistatza” jo du, tradizioa eta modernitatea bateratzen dituen. Programa osatzen duten ekitaldien “kalitate musikal eta artistiko handia dela eta, paregabe-ko gertakari bihurtzen da gure inguruan”.

Kontzertu guztiak doan dira.



## PROGRAMAZIOA

EGUNA	HIRIA	LEKUA	ARTISTA
Abuztuak 19, ostirala, 20:30ean	Hondarribia	Arma plaza	Xabier Aburruzaga (Euskadi)
Abuztuak 19, 21:30ean	Hondarribia	Arma plaza	VIEUX FARKA TOURE (Mali)
Abuztuak 20, larunbata, 19:30ean	Irun	Eskoleta karrika	YACINE BALAHNE, YANNIS PAPAIANOANNOU & The Oriental Groove (Aljeria-Grezia)
Abuztuak 20, 21:00etan	Irun	Junkal plaza	OLGA Y LOS MINISTRILES (Aragoi) COETUS (Jatorri iberiarreko musika)
Abuztuak 21, igandea, 18:00etan	Hendaia		LA FANFARE DE GOULAMAS. Kaleko ikuskizuna (Languedoc-Roussillon)
Abuztuak 21, 19:30ean	Hendaia	San Bizente elizan	TXOMIN ARTOLA

## Reagge Gaua

Abuztuak 21, igandea	Hendaia	Gaztelu Zahar pilo- talekua	
21:00etan			LENGUALERTA (Mexiko)
22:00etan			MACKA B & The Roots Ragga Band (Erresuma Batua)
23:45ean			BAD SOUND SYSTEM (Eusk)

# Zorrotzailea: lanbide nomadak bizirik dirau

Aitarengandik jaso zuen lanbidea oinordetzan, eta hark ere aitarengandik. Duela 43 urte, txilibitua ahoan eta lanabesak aldean, bideari lehenbizikoz ekin zion. Ordutik, Israel zorrotzaileak ez daki zenbatetan korrituak dituen Valentziatik Asturiasera bitarteko herriak. Zabaldua dagoen sinemenaren kontra, zalantza zipitzik gabe ziurtatzen du zorrotzaileak ez duela euria erakartzen.



Israel zorrotzaileak 1968. urtean hasi zen herriz herri lanean. Argazkian, Irungo Joaquin Gamon kalean, uztailean.

**T**xingudi Connection ekimeneko GPS turismo gida duten Iphonen erakustaldiak banda zabaleko bidaia teknologikoan murgildu ninduen. Anartean ukipen-pantaila buruan txertatuta nuelarik, kalera irten nintzen. Tupustean, labainak zorrozteko bi harri zituen txirrinda batek denboran atzera jauzi egin arazi zidan. Jabea aldameneko tabernan kafesnea hartzen ari zen gizon txiki beltzarana zela ez nuen duda egin. “Bost minutu besterik ez dizut eskainiko elkarrizketa egiteko”, bota zidan, ministroen ahotan aditzen ohituagoak gauden esaldia.

#### 43 urteko ibilbidea

Aitarengandik heradatutako ogibidea ogirik gabeko bidea dela dio zorrotzaileak, lan eskasiaz kezu. *Ogiaren txilibitua* ahoan -hala esaten dio- txirrinda egokitua lagun, Valentziatik Asturiaseraino Espainia erdia korritzen du. *Eta beste erdia? Ez dakit zein dabilen alde haieran. Nirean zorrotzaile bakarra naiz.*

1968. urtean estraineko bira egin zuen, noten eskala gora eta behera joaz bezeroak leihoetara lehen aldiz erakarri zituen. Oraindik ere jateko lain ematen dion lanbidea ez dela desargertuko ziur da. “Jakina, jendeak zorrozteko mota guztietako tresnak eta aparatuak erosten ditu, baina azkenean botatzen ditu!” Pieza bakoitzaren truke 3 euro kobratzen ditu -*sorta batengatik beherapena egiten dut*- eta egunero 15 edo 20 bat lan burutzen ditu. Eguna abaildua denean furgonetara trasteak bildu eta bertan egiten du lo.

*Izango dituzu, bada, gertaera bitxi pilo kon-tatzeko, ezta?* Israel niri so, gogoratzen zituen bitartean txintik esan gabe. Ezetz buruaz, samina begietan. *Hain tristeak al dira? Bai.* Sorbatzekin loturiko irudipen lazgarriak asaldatu ninduten.

#### Irunen barrena

Katiluko kafesnea hustearekin batera Israelek niri eskainitako denbora agortu zen. Txistuka lanari lotu zitzaion bueltan, Joaquin Gamon




---

“Jendeak zorrozteko  
aparatuak erosten ditu,  
baina azkenean  
botatzen ditu”

---

kalean eguerdi parean. Ez da inor hurbiltzen, ez da inor leihoetara ateratzen. *Ondo entzutzen da etxe barrutik nire txistua, bai, horretan zalantzarik ez!* Luis Mariano aldera egin zuen ondotik, baina han ere ez zuen bezerorik oraingo txanda. Biharamonean San Migel auzoan osteratxoa egiteko plana zuen. Burgosera abiatuko zen jarraian. *Irunera iraila aldera itzuliko naiz.*

Zorrotzailea igarotzen denean, euria egingo duen seinale, dio sinesmen zaharrak. *Hori bai ez dela betetzen!*, argitu zuen esperientziaren metodo zientifikoaz. Zorrotzaileak bakarkako bidea jarraitu zuen. Biharamunean sekulako euri-jasa bota zuen Irunen.

Roberto Olabe, Real Unioneko entrenatzailea

# *“Zaletuengan grina eta nahiak piztu behar ditugu”*

Mirandes, Deportivo Alaves, Salamanca, Reala, Eibar, Valladolid eta Almeria. Jokalaria, entrenatzailea, kirol zuzendaria. Hirugarren mailatik gorako guztietan aritutakoa. Oraingoan kategoria goreneko Almeriatik Irunen zelairatu da gasteiztarra, konplexurik gabe, “erronka zoragarri bat abiatzeko”.



- Lehenengo mailako talde baten entrenatzailea izan zara azken denboraldian. Motibatuta zaude 2. Bko batekin lan egiteko?

Bai, zeharo. Kezka hori ulertzen dut; baina

Real Unionen proiektua berriz ere abiatzeak dakarren ilusioa eta erronka zoragarria iruditzen zait. Lan bat egiten denean garrantzikoa da zoriontsu sentitzea, taldearen maila alde batera utzita.

---

“Gutziz garrantzizko deritzot taldekide guztien arteko konfiantza sortzeari”

---

- Zaletuak exijenteak izango direla uste duzu?

Zaletuak exijenteak dira Klubaren historiaren-gatik. Erronka handiak erdiesteko borroka egiten ohituta dagoen Kluba da eta iritsi berriok egokitu behar dugu errealitate horri. Zaletuengan grina eta nahiak piztu behar ditugu. Nahiok grina eta exijentzia dute funts eta mami, ez bide erraza hartzeko nahikeria.

- Zer nolako aukerak izango ditu Real Unionek sasoi honetan?

Ez dut gustuko azken helburuez mintzatzea; bai, ordea, erdian kokatzea duten jomugez. Real Unionek denbora asko eman du igotzeko lehian murgildurik. Ezin diogu errealitate horri bizkarra eman. Aipatu dudan erdi hori landu behar da, helburua eskuragarria izan dadin.

- Egutegia finkatua dago. Zer iruditzen zaizu?

Ilusioz, nahiaz eta exijentziaz hitz egin dut. Bada, ligaren hasiera halaxekoa izango da: 2 derbi (Sanse eta Eibar) eta bi historikoren arteko norgehiagoka: Real Union - Deportivo Alaves.

Aurten talde guztien maila jaso izango denez, halakoak izatea pizgarri bat izango da guretzat.

- Zein da fitxaketa berriak egiteko irizpidea?

Fitxaketak egiteko orduan jokalaria izena baino inportanteagoa da egin dezakeen ekarpena. Talde sendoa egin behar dugu, proiektuarekin bat egiten duena. Horiexek dira, fitxaketak egiteko orduan kontuan hartzen ditugun irizpideak.



- Zein da aurreonboraldiko entrenamenduetako lan-plana?

Lehenengo bi asteetan joko-eredua landu dugu. Egokitzapen fasea izan da. Hurrengo bietan lan-ildo bera garatu eta azken bietan lehiaketa prestatzen ibili gara.

- Jokalarien, teknikarien eta zuzendaritzako kideen artean sintoniarik bai?

Aurreonboraldian jokalaria ez beste inor kontuan hartu ohi dira. Funtsezkoa da, ordea, taldekide guztien arteko kohesioa. Kohesioa lehiaketa hasi baino lehenagoko aldi horretan landu ahal da. Gutziz garrantzizko deritzot taldekide guztien arteko konfiantza sortzeari, lehiaketa garaian nor bere egitekoa zein den garbi izan dezan. Horra oinarria, ez baita banakako gaitasunak trebatuz helburua lortzen, taldea ardatz hartuz baizik.

# irunero aldizkaria non eskura daiteke?

## **ANAKA**

ANAKAKO KASINOA  
KUTXA  
BURDINDEGIA (Kutxaren  
aldamenean)  
ANAKAKO AUZO ELKARTEA  
BIDASOAKO OSPITALEA

## **BELASKOENEA:**

TXIMISTA TALDEA (Parrokia)  
BELASKOENeko AUZO  
ELKARTEA

## **ARBES eta PALMERA-MON- TERO**

VICTORIA TABERNA  
(Altzukaitz)  
LA AGRICOLA  
PALMERAko HAINBAT  
KAFETEGI-TABERNATAN

## **BEHOBIA eta ARTIA**

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIA-  
LA  
TRINKETE TABERNA (M<sup>a</sup>  
Juncal Labandibar kalea)  
AZKEN PORTU KIROLDEGIA  
KUTTUNA HAUR ESKOLA  
(Artiako Caro Baroja plaza)

## **ERDIALDEA**

HERRI JAKINTZA (Nafarroa  
hiribidea)  
BRASIL gozo-denda  
ELKAR liburu-denda  
OSKARBI Liburudenda  
EUSKADIKO KUTXA (Kolon)  
KUTXA (Kolon)  
JUBILATUEN ETXEA (Luis  
Mariano)  
VIRGINIA kafetegia  
SIRIMIRI taberna  
KUTXA (Gipuzkoa hiribidea)  
KIOSKO 33 (Argentinari  
Errepublikari)  
HAZ-SAC

FOTOKOP (Foruen karrika)  
GAZTE INFORMAZIO BULE-  
GOA (Foruen karrika)  
EUSKARA Arloa (Foruen karri-  
ka)  
ACUBI (Foruen karrika)  
IZOKINAREN KOFRADIA  
(Kale Nagusia)  
ARANO taberna  
MANOLO taberna  
SARGIA taberna  
AEK Euskaltegia  
ARTXIBOA eta LIBURUTEGIA  
MENDIBILGO MUSIKA  
KONTSERBATORIOA  
ARTALEKU KIROLDEGIA

## **DUNBOA**

TOMA PAN Y MOJA (S.  
Pedro)  
OSASUN ZENTROA  
KUTXA (Nafarroa hiribidea)  
ERKA (Salvador Etxeandia)  
ALDABE paper-denda

## **LAPITZE**

ANBULATORIOA  
AMAIA KZ eta Pio XIIko kios-  
koa.  
OGIBERRI (Serapio Mujika)  
EUSKADIKO KUTXA (S.  
Mujika)

## **MEAKA**

MEAKAKO Bizilagunen  
Elkartea  
ERROTAZAR  
OLA Sagardotegia

## **OLABERRIA**

ESTEBENEA taberna  
LABEKO ETXEA jatetxea

## **ALDE ZAHARRA**

UDAL EUSKALTEGIA  
ALDE ZAHARREKO BIZILA-

GUNEN ELKARTEA  
(Larretxipi)  
EKT (Larretxipi, 12)  
KURPIL KIROLAK (Peña k.)  
HAZIA taberna (Peña kalea)  
ESKINA taberna  
EUSKADIKO KUTXA  
(Urdañibia)  
KULTURA Arloa  
(Ospitale Zaharra)

## **ANTZARAN**

NEKANE paper-denda  
Lekaenea

## **SAN MIGEL**

KOLON burdindegia  
(Hondarribia kalea)  
KUTXA (Zubiaurre)  
EUSKADIKO KUTXA  
(Zubiaurre)  
SAN MIGELeko AUZO  
ELKARTEA (Luis de Urantz,  
24)  
ATREZZO (Geltoki kalea)

## **SANTIAGO**

AGUIRRE okindegia (Junkal)  
CANON (Santiago k.)  
SANTIAGO AUZO ELKARTEA  
BIKOTE (Erromes plaza)

## **URDANIBIA**

TANDEM kafetegia

## **KATEA**

KATEKO AUZO ELKARTEA

## **LARREAUNDI**

OKINDEGIA (Eguzkitzaldea k.)  
AUZO ELKARTEA  
(Iñigo Loiolako)  
LARRARTE Harategia  
(Eguzkitzaldea, 17).

# Euskal Jira 2011



Ezkerrean:

Santiagokoen gurdia sare-konpon-tzaileen lan balio-tsua ekarri zigun gogora.

Behean ezkerrean, gazte talde bat.

Eguraldi euritsua gorabehera, jai giroa nagusi izan zen ibilbide guztian zehar.

Behean eskuinean:

Behobikoek 2. gari-ta izeneko lana aurkeztu zuten. Ibai er-tzean zegoen

Goardia Zibilaren

postu honen ondoan hainbat belaualdik igeri egiten ikasi du.



## Olaizola

Immobiliaria  
agentzia

Salmenta - Alokairuak  
Promozio berriak - Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 IRUN

Tel: 943 62 65 85

API 316

[www.inmobiliariaolaizola.com](http://www.inmobiliariaolaizola.com)



1



2

- 1.- Anakakoek La Ceba taberna enblematikoan jokatzen ziren mus partidak irudikatu zituzten.
- 2.- Kalejira Kolon ibilbidean barrena.



3



4

- 3.- Asko dira Kemen Dantza Taldeak egiten dituen dantzak. Euskal Jirako gurdi honetan dantza jakin batzuk erakutsi nahi izan zituzten, itsasoarekin lotuta daudenak, hain zuzen ere.
- 4.- Txistulari eta atabalari adoretzu talde bat.



higer bidea, 6-  
20280  
hondarribia.  
gipuzkoa  
t(34) 943 64 27 12

[arrokaberri@arrokaberri.com](mailto:arrokaberri@arrokaberri.com)  
[www.arrokaberri.com](http://www.arrokaberri.com)







1



2



3

1.- Meakakoek, balearen arrantza gogoratzeko, ugaztun erraldoi honen irudia zera-maten, eta, esku artean, arpoiak.

2.- Emakume talde bat dantzan. Eutsi, hor!

3.- Trikiak, panderetak, txistuak... euskal aireak



Ramuntxo Trinkete Klubak Teodoro Murua omendu zuen. 1888an jaio zen Irunen, eta 1968an hil zen. Musika Bandako zuzendari gisa nabarmendu zen, bertan lan handia eginda.



Desfileko lehenengo gurdia, ohi bezala, Hendaiaiko Euskal Jirako bat izan zen. Aurtengoan, Pausukoenaren txanda izan da.

**gesAR**  
gestoria ARANA  
corretoria de seguros

asesoria aholkularitza  
integral integrala  
ingenieria injenieritza  
seguros aseguruak

Gipuzkoa hiribidea, 26.  
IRUN

**Tel: 943 666 050**

Fax: 943 618 075

[gestoria.arana@garana.com](mailto:gestoria.arana@garana.com)



XVII. eta XVIII. mendeetan Katea auzoan sagardoa ekoizten zuten baserri askoren berri dugu. *Otatze* haietako bat zen.



Meaka: Euskal Herriko kostaldean orain dela 100 urte baino gehiago azaldu zen azken aldiz balea. Baina garai batean oso ohikoa zen euskaldunak itsasora balea bila ateratzea.



Euskal Kirolak: baserriko tresna zaharrak.



Goitik behera: Meakakoen gurdia, Bizkaiko dantzak, joaldunak eta Ramuntxokoen gurdia aurrealdea.

## Menchu Galen erretratuak eta Javier Alkainen lanak, Urdanibia plazako aretoan



Goian ezkerrean, Jose Antonio Ponte (40koen hamarkada). Goian, Floryda Müller anderea (1961). Behean ezkerrean, Javier Alkainen obra bat.

**M**enchu Gal aretoko erakusketa berriak margolari irundar honen erretratuak eta Javier Alkain hondarribiarraren obrak ditu protagonista.

Datorren urtarrilaren 15era arte zabalik izango den erakusketa Jose Antonio Santano alkateak uztailean inauguratu zuen. Aurkezpen ekitaldian, izen propioa duen erakusketa dela adierazi zuen. “Menchu eta Javierren izenez gain, Menchuk mihietan islatu zituen gizon-ema-kumeen izenak daude. Izaera eta arima duten erretratu hauek agian bere paisaiak baino gutxiago ezagutzen dira, baina ezin hobeto jaso-

tzen dute Menchu Galen pinturaren arrastoa eta nortasuna”.

Guztira 27 koadro ikusgai dira Urdanibia plazako aretoan. Horietatik 18, Menchu Galek pintatuak dira: 10 obra partikularrak dira; 7 erretratu Gipuzkoako Foru Aldundiarenak, eta bat, udal udal bildumarena. Gela txikian Javier Alkainen ekoizpenaren lagina ikusgai da, 8 lanez osatuta.

**Ordutegia** Ostiraletan eta larunbatetan  
18:00-21:00. Igandetan 11:30-13:30.

## Luis Marianori omenaldia bere heriotzaren 41. urteurrenean

Luis Mariano mundu zabalean ospe handia lortu zuen tenore irundarra bere sorterrian gogoratua izan zen joan den uztailaren 14an, hil zela 41 urte bete zirenean, hain zuzen. Ekitaldi xumean zehar Luis Marianoko lorategietan dagoen kantariaren brontzezko eskulturaren lore eskaintza egin zen. Jose Antonio Santano alkateak eta Fernando San Martín Kultura zinegotziak parte hartu zuten, baita egun haietan burutzen ari zen Luis Mariano Nazioarteko Kantu Lehiaketako epaimahakideek ere.



Irungo alkatea Kantu Lehiaketako epaimahakide batekin lore-eskaintzan.

## Ama Xantalen kaleko trafikoaren norabidea Urdanibia plaza alderakoa da

Ama Xantalen kaleko zubi berriaren obrak amaituta, uztailaren 15ean kalea trafikorako ireki zen, baina lehengo norabidearen aurkakoa. Aldaketaren asmoa da Arbes edo Palmera Montero ingurutik Alde Zaharrera, Larreaundira edo Lapitzera doazen ibilgailuak kale horretatik pasa daitezela, Urantzu kalean trafikoa murriztearren. Izan ere, oso kale estua da, ibilgailu gehiegi pasatzen dira eta Urdanibia plazan ekintzak daudenean itxi egiten da.





Navigium Isidis prozesioa. Ezkerretik hasita, zenturioia, Anubis jainkoaren maskaraduna, emakume talde bat, sazerdoteak eta Dunboako ubidera uretaratutako itsasontzia.

## Oiasso erromatarra, jaietan

Irun erromatarren garaiko festetan murgildu zen, uztailaren 15etik 17ra, historia berreraikitzeko *Dies Oiassonis* jaialdia kari. Museoak prestatutako egitarauko ekitaldietan 2.500 bat lagunek parte hartu zuten. Jarduera nabarmeneko bat Navigium Isidis prozesioa izan zen, Isis jainkosaren omenezkoa. Inperioko portuetan egiten zen, eta hala inauguratzen zen martxoan nabigazio denboraldi ofiziala. Prozesioa museoetik Dunboako ubideraino abiatu zen, botozko itsasontzi bat hainbat eskaintzarekin uretaratzeke xedez. Hasierako zatia maskarada bat izan zen; ondoren, jainkosaren jantziaren ardura duten emakumeak eta jainkosa andetan zermaten zibilak, argi-zuziak eta kandelak eskuetan; geroago musikariak, atzetik haur abesbatza eta horien ostean kultu horretako talde bat.



Amaieran, sazerdoteak, haietako batek Anubis jainkoaren maskara jantzita. Azkenik, partaideek museo aurreko plazan Ploiaphesia izeneko zeremonia burutu zuten eta, bukatzeko, fededunek loreak utzi zituzten jainkosaren ondoan. Hiru egunetan zehar beste hainbat jai-ekitaldi garatu ziren; hala nola, erromatar musikako kontzertua, antzerkia, jarduera gastronomikoak, gladiadoreak, tailerrak, nabigazioa garaiko itsasontzien erreplikekin, eta beste berreraikitze historiko interesgarri batzuk ere.

## Iñaki Etxeparek musika eta irudiak uztartzen ditu *Bach eta itsasoa* lanean

Iñaki Etxepare biolontxelotzailerak irundarrak musika eta irudiak uztartzen ditu bere azken lanean, *Bach eta itsasoa*, *Cello Suites in Hondarribia* izenburukoan. Bi CDtan alemaniar musikari ospetsuaren sei suite grabatu ditu, eta DVD batera beste horrenbeste dokumental eka- rri ditu, guztiak ere Bidasoako kulturari buruzkoak, musikaz lagunduta.

“Bach hitzak errekasto esan nahi du alemanez. Musikaria, ordea, ez zen sekula itsasotik hurbil bizi izan. Lan honen bidez erreka itsasoraino eraman nahi izan dut, alegia, Johann Sebastian Bach itsasora hurbildu”.

Dantza garaikidearen bitartez, Bidasoa ibaia jaiotzen den lekutik ur tanta bat Jaizkibeiko hegietaraino bideratzen du ikus-entzunez-



Artista, lanaren azalean.

koak. Lehenengo atalean jaiotza agertzen da; bigarrenan, zur-eskulangintza, txo- txongiloak eta arrantza sareak. Ondoren, gastronomia jorratu du; gero, kirolak eta historia. Azkenik, arrantzale lanaren txanda da. Guillem Roma errealizatzailearen eta

Clotilde Amoureux dantzaria- ren lanaz gauzatutako doku- mentalak dira.

Gure eskualdean estreinatu ondoren, Etxeparek mundu zabaleko agertokietan aurkez- tu nahi du “Bidasoaren alder- di turistikoa erakusteko tresna baliagarria” den obra hau.



F / O / T / O / K / O / P

FOTOKOPIAK KOLORETAN ETA TXURI BELTZEAN, PLANOEN FOTOKOPIAK, ENKUADERNAKETAK, PLASTIFIKAZIOAK, ORDENGAILUZKO LANAK, KAMISETAK, FAX ZERBITZUA, PAPERDENDA,....

Foruen kalea, 4 - 20302 IRUN

Tel./Fax: 943 63 22 11

E-mail: [fotokop@telefonica.net](mailto:fotokop@telefonica.net)

# Ezer ez da betiko

Zerua goibel  
 Zeguna argitzen  
 hasi orduko, eta  
 karrikak bustirik  
 Irunen. Nik irribarre  
 egin diot biharamun  
 euritsu honi, eta oilo-  
 ipurdia jarri zait titibi-  
 liti eta danbor-hotse-  
 kin San Martzial bez-  
 pera honetan.  
 Gainera, adiskide  
 zahar baten posta  
 elektronikoa jaso dut,  
 aspaldiko partez.  
 Ahoa minbera eta  
 bihotz minez pentsa-  
 tu dut ezer ez dela  
 betiko.

Heriotzak  
 eraman ditu asko  
 maite ditudan pertso-  
 nak, eta distantziak urrunarazi bihotzeko  
 lagun min batzuk, denbora eta espazioa tarte-  
 katzen da, bai eta pertsona berriak ere, eta  
 bakarrik nagoela oroitu naiz. Ezer ez da betiko,  
 ez, mundu honetan, eta Sarrionandiak oharta-  
 razi zidan bai bere olerki batean ez dagoela  
 haririk, ez dagoela loturarik. Ezer ez da betiko,  
 baina hala ere ametsetan segitzen dut ene  
 bakardadean gehiegi itxaroten eta eskatzen  
 badut ere, eta noizbait ene maitearekin bate-  
 ra joango naizela eta familia bat osatuko duda-  
 la amesten dut. Ezinezkoak posible egin al dai-  
 tezke?

Irunen bi alardeak maite ditut, bietan  
 ditudalako lagunak eta maiteak, eta horrega-  
 tik, noizbait denborak eta espazioak elkartuko  
 dute jaietan Bidasoaldeko herri berezi hau,



ezer ez baita betiko  
 eta gehiegi itxaroten  
 eta eskatzen badugu  
 ere, ametsetan segitu-  
 ko dugu eta ezinezko  
 dirudiena posible  
 egingo dugu.

Eskua eskaini omen  
 zidan bihotzeko lagu-  
 nak, eta nik beso osoa  
 hartu nahi omen nion.  
 Horregatik eten zen  
 gure arteko ustezko  
 hari hori, nik gehiago  
 nahi omen nuelako,  
 eta orain konforma-  
 tzen ikasi dut bizitzan.  
 Uda honetako neure  
 ametsa adiskide zaha-  
 rrak berreskuratzea  
 da, eta haiekin barre  
 egitea, nahiz eta jakin

ezer ez dela betiko, ezta Irungo San Martzial  
 jaietako bi alardeak ere.

Jai bat soilik da, baina oroitarazi  
 beharko genuke alarde hauekin ez dugula eus-  
 kaldunok benetan ezer ospatzekorik. Izan ere,  
 1512an Gaztelako erregeak Nafarroako  
 Erreinua konkistatu baitzuen indarrez, eta  
 bortxaz frantsesekin batera, nafarrak edo eus-  
 kaldunak ere desterratu baitzituen. Munduko  
 historiografiak ezkutatu nahi izan diguna argi-  
 tara ateratzeko tenorea dugu, eta heldu den  
 urtean bi alarde gabe, bakarra eta euskalduna  
 izan dadila. Ezer ez da betiko, eta goza deza-  
 gun biharko eguzki goxoa!

*Ainara Maia Urroz  
 Olerkari ameslaria*

## Zer, frustrazioa? Beharrezkoa al da?

**Frustrazioa jaiotzen garenetik sentitzen dugu, jaioberriaren lehen behar ez asetuak dira gizakion lehen frustrazioak. Amaren sabelean behar guztiak beteak daude baina jaiotzean jaioberriak hamaika aldaketa sentitzen ditu: gosea, hotza...**



Ondorioz, negarraren bidez bere ondoeza islatzen du, zerbait behar duela adieraziz. Gurasook ezin ditugu haurraren behar guztiak aurreikusi, ezta hauek une berean asetu ere. Horrela sortzen dira jaioberriaren lehen frustrazioak.

Lehen aldi honetan gurasoen sentsibilitatea (haurrak zer eskatzen duen antzematea, jakitea) oso garrantzitsua da. Gurasook lasaitasun, pazientzia, tonu eta doinu goxoz haurra lasaitzen eta bere betebeharrak asetzen saiatu behar dugu. Haurrak ez du ulertzen zer gertatzen den (kotxean ezin garela berehala gelditu titia emateko, biberroia beroegi dagoela...); baina helduaren

maitasun goxoak (besotan lasai hartuz) frustrazio hori eramaten lagunduko dio.

Zortzigarren hilabetea arte helduaren erantzun azkarrek gero eta negar motzagoa eragiten dute. Zaintzaileak haurrari azkar eta sendo erantzuten badio, honek berehala ikasiko du ez duela zertan sakon negar egin behar kasu egitea lortzeko. Jaioberritan frustrazioen ekidite honek izugarri lagunduko dio segurtasuna lortzen, ez baitu gaitasunik gertatzen dena ulertzeko.

Horrela, haurrak bere beharrak asetuak direla sentitzen duen heinean, konfiantzaz eta segurtasunez hazi egiten da eta pertso-





na helduaren eredu bat sortzen du, atxiki-mendu figura seguru bat eraikiz.

**HAURRAK FRUSTRAZIOA** intentsiboki bizitzen duen beste garaia 18 hilabete inguruan ematen da: haurraren **AFIRMAZIO** edo **BAIEZTAPEN** aldia. Garai horretan, haurra bere buruaren kontzientzia hartzen ari da, badela badaki eta bere desioak bete nahi ditu. Baina helduen desioekin topo egiten du eta zenbait arau integratzen hasi behar du. Hala ere, haurrak bere desioak ditu eta berea lortu nahi du; alegia, pertsona bezala badela baieztatu nahi du. Ondorioz, helduak baietz esaten badu, berak ezetz esaten du eta alderantziz. **EZ** eta **EZ DUT NAHI** hitzak bere burua baieztatzeko erabiltzen ditu, ezetzarekin bere boterea adierazi nahi du, bera badela, bere **NORTASUNA** baieztatzen, afirmatzen ari da. Boterea duena, ordea, heldua da, eta onartzeak frustrazioa sortzen dio, amorrua.

“Kasketen” garaiaz ari gara; nik, aldiz, ez dut hitz hori oso gustuko, baieztatzeko beharraz mintzatu behar dela iruditzen zait. Oso gogorra da haurrek garai horretan dituzten jokaerak pairatzea; zerbait nahi badute, oihuka hasi, bere burua lurrera bota eta denbora luzez egon daitezke nahi dutena lortu arte edo nahi dutena lortu ezin dutela onartu arte. Momentu horiek zailak dira guraso eta hezitzaileontzat, gure barrunbea kolokan hasten baita; baina haurrak momentu horiek bizi behar ditu, frustrazioa toleratzen edo onartzen ikasi behar duen garaian gaudelako. Gogoeta bat egin dezagun: momentu horietan haurra eskakizun sendo eta gogor bat egiten ari denean, jende anitzen aurrean zer da pentsatzen duguna???

Gehienetan gure buruarekiko segurtasuna galdu egiten dugu: gaizki hezten ari naiz haur hau? Nire haurra ona da, zergatik egiten du hau? Zer pentsatuko du jendeak? Zergatik egiten dit hau? Zer egiten ari naiz



gaizki?

**EZETZA** beharrezkoa eta koherentea dela seguru bagaude, haurrak mezua argi jasotzen du; kexatzen da, baina errazago onartzen du ezin dela.

**Zein da bidea haurrari FRUSTRAZIOA onartzen erakusteko?** Pistatxo batzuk:

- Hiru urte bitarte haurrei arau gutxi baina argiak ipini behar zaizkio. Gure buruari (bikotearen edo lankidearen adostasunaz, hobe) argi galdetu zeintzuk diren guretzat beharrezkoak diren arauak.

- Haurra kexatzen hasten denean, arnasa hartuta gure burua pazientziatzat bete eta segurtasuna islatzen saiatu. Normala da haurrak frustratua sentitzea garai honetan hamaika aldiz esaten baitiugu **EZETZ**; haurraren garapen sozioafektiboan garai hau pasa behar da.

- Haurra ulertzea eta bere frustrazioa onartzea, hitzetan ipini sentitzen duena: “haserre zaude?” “badakit hori nahi duzula, ulertzen zaitut; baina ezin da, sentitzen dut, baina ezin da”.

- Hau ezin dela azaldu, baina, ahal bada, berak onartzen duen bide bat ireki: “gaur ez dago goxokirik, baina eskola ez dagoenean erosiko dugu”

Ez zaitetzte frustratu, guk ere ez dugu dena ongi egiten, baina saiatuz goaz aurrera. Ondo pasa uda!!!!

*MAPI URRESTI ORTIZ  
KUTTUN AHOLKULARITZA  
PSIKOPEDAGOGIKOA.*

Oporraldiko lehenengo astean gure ohantzea uztea ohiko bihurtu zaigu bikoteari eta bioi. Uztailean *Titin* pilotaria eta Logroño izan nituen hizpide. Bada, hara, Errioxara eraman gaitu patuak.

## Gaur egungo terraza batetik

**G**arai batean hatza mapa gainean jartzen genuen nola, hala nabigatzen dugu egun sare birtualean. Sartu gara Sarean, eta luzaz murgildu gabe, nondik norakoak zehaztu ditugu aurten ere. Halabeharrak Errioxara eraman gaitu, Lau gau baino ez ditugu egin “gure”tik kanpo. Ezkarai herrira joan gara eta bertatik bertara ibili.



Arg: Ana Nestlar

gorde dute denboraren joan-jinean. Jite naturala. Hots, gauza bat begiratzen zait naturaren bila-kaera eta bestelakoa aldiari politikaren garapena –edo halabeharrra–. Ezkaraiko Zaldiernon ostatatuak izaki, Errioxan ginen. Laguardian ginela, berriz,

Ezkaraik bederatzi *aldea* edo herrixka ditu. Altuzarra eta Zilbarrena –hauek hutsik daude–, Aiabarrena, Azarrula, Posadas, San Antón, Turza, Urdanta eta Zaldierno dira herrixkak.

Zaldiernoko Río Zambullón landa-turismo etxean ostatu gara. Bailara zeharkatzen duen Oja errekarara jaisten da Zambullón errekastoa. Ojak berriz Ebron isurtzen ditu urak. Gaztelako –Burgos– lurrekin muga egiten duen Sierra de la Demandara igo gara egun batean, eta Arabako nahiz Nafarroako mugetaraino –Bianaraino– hurbildu bestean. Ebroz iparraldeko Laguardia herriraino iritsi gara horietako batean. Herri ederra, Laguardia. Muino batean altxatzen da gailen, harresiek bildua eta babestua.

Erromatar inperioaren garaiak gogoratu ditugu: mahastiek eta gari soroek liluratu gaituzte, baita hauetako uztak biltzen dituzten upategiek eta sotoek txunditu ere; nekazal *terrazza* franko tarteko direlarik. Ebroren magalera zabaltzen diren lurraldeek berezko jite amankomuna

Euskal Herrian. Karrikaz karrika ibili gara, tokiko jite ideologikoen ikurrak begiztatu ditugu. Jeltzaleenak eta independentzia zaleenak kausitu ditugu agerikoenak: “Independentzia” edota “Arnaldo askatu”.

*Terraza* hitzaren jiteari eta bilakaerari segida emanez, terraza batean eseri gara. Turisten modura gu ere. Nolaz, bestela? Parez pareko turista batek Errioxako *El Correoren* orriak astindu ditu eta Antonio Basagoitiren hitzak irakurri ahal izan ditugu: “*No podemos permitir que nos lleven a la aldea prerromana*”. “Gure” PPko burua Bildu koalizio politikoaz mintzo zaizkie jeltzaleei eta sozialistei.

“Hitz bortitzek indarrezko ekintzak sorrarazten dituzte (...). Laguardiako bizilagunak ‘gure takoak’ izatea desiratzen dut, eta berek horrela aukeratu dutelako. Areago, berezko jite edo izaerakoak izan daitezten...” pentsatu dut eta halatsu erran ere bikoteari. Gaur egungo *terrazza* batetik, erran ere.

**MIKEL ASURMENDI**

# Epika eta Lirika. Izan vs Egon. Pika eta Ebats

**L**emizkoz (lehenbizi-koz) aitor dezadan titulu bera untsa endelegatu gabe hasten dudala iruzkin hau. Giblekoz aitzina. Bukaerakoaz amaieran aipatuko dut, eta beste delakoari buruzkoa, hots.

*Hazkurria* funtsezkoa dugu bizitzeko, baita funtsezkoa ere Joxemiel Bidadorren poesia ulertzeko. *Hutseanikoak*, berriz, iradokizun gisara hartzen diot Bidadorri. Bere abizenak legez, poesiaz elikatzeke hainbat kontu eta zio iradokitzen dizkit *hutseanikoak*.

Bertsotan ezinean –*Xalbadorren* maneran, demagun– bere barne etsia –eta hesia– urratzen du poetak. *Lemizkoz* –Joxemiel Bidadorrek izkiriatu gisan– arauak –eta hesiak– urratzen hasten baita poeta, hitz neurtuen mugetatik aske, hitz laueta. Barneko harrarekin borrokan, bere beste ni-arekin dihardu eleketan: lohia eta hordia iragan ditu poetak. Orekan ibili aldera betiere, identitate gabetasunaren *lanturua* jasan du, hiriaren morrontza –aitaren etxerik gabe dabil munduan– gizonkiaren plazerra eta desplazerraren porrota eta egungo (euskal) poesiaren *Niaren* proiektzio faltsua agerian utziz.

Barneko etsia urraturik, kanpo etsiaz dihardu buru-belarri segidan. Hari jarraikiz hauxe ikasi diot: jaioz geroztik heriotzari buruz tai gabe abiatu, buru-belarri ezpalkatzen ditugu



**Liburua:** *Hutseaniko hazkurria*  
**Egilea:** Joxemiel Bidador  
**Argitaletxea:** Pamiela

memoriaren barruan aterpetutako oroitzapenak. Sekula baino gehiago memoriaz elikatutako izakariak baikara gaur egungo munduan. Zoriona merke saltzen zuen jendarte-merkatu honetan honen alternatiboa izan zaitezke, baina libre ez.

Barne zein kanpoko etsia mendera ezinak direla onarturik, historiaren harrobia zama kargaturik, munduan jarraikitzen ausartzen da poeta, oldarkor: giblekoz aitzina, ezkortasuna onartzen du –etsipena nagusi izanagatik errealitate gordinari aitziz eginez– naufragoa izaki. Heriori erregu egiten dio, baikor egin ere, jakinik ezin dugula harengandik libratu, jakinik ere inspirazioa ez

dela nahikoa poema onak idazteko, poema onenak idatzi gabekoak baitira. *Hutseaniko* geratutakoak agian, bidezidorretan biltzen direnak –edo bide dorretan geratzen direnak–; *Bidadorrean*, naski.

Eta beste azkenik: Garañoko gatazkaren (bart) bezperan egin besta isilean –*Bidadorrean*–, andrearen eta desgizonaren gauzatzea burutuko dugu, naski. *Pika eta ebats / pika bietan eta ebats / pika bietan eta ebats / pika bietan eta ebats / ...ezker eta eskuin / ezker eta hiru / erdizka eta hiru...*

Epika eta Lirika. Izan vs Egon. Pika eta Ebats...

**MIKEL ASURMENDI**

# k u l t u r a g e n d a

## Abuztuaren 14ra arte

- Euskadiko Kutzaren aretoan, Euskal Jiraren inguruko argazki erakusketa.

## Abuztuak 13



- Urdanibia plazan, 22:00etan, antzerkia. GluGlu taldeak *Marika de playa* lana antzeztuko du. Zuzendaria: Ana Perez. Antzezleak: Patxi Perez eta Mila Espiga.

## Abuztuaren 16tik 28ra

- Euskadiko Kutxan, Xabier Ilarregiren margo erakusketa.

## Abuztuak 20

- Zabaltza plazan, 10:00etatik aurrera, bildumazaleen azokaren 4. edizioa.

## Abuztuak 25

- Urdanibia plazan, udako zinema emanaldia. Pelikula: *Arthur y los Minimoys*.



## Abuztuaren 30etik irailaren 11ra

- Euskadiko Kutzaren aretoan, Maria Jose Gaztelumendiren margo lanak.

## Irailak 7

- Junkal plazatxoan, 19:45ean, Junkaleko Andre Mariaren omenezko kontzertua, Irun Hiria Musika Bandaren eskutik.

## Musikirun kontzertuak



**Abuztuaren 27an**, Urdanibia plazan, 22:00etan, Musikirun I. Maketa Lehiaketan parte hartutako talde finalisten kontzertua.

## Jazz kontzertua



Abuztuaren 18an, Eskoleta kalean, 22:00etan, jazz kontzertua.

- Taldea: VOS 4tet

## Pintura erakusketa Amaia KZn

**Artista:** Agnieszka Daca.

**Noiz:** Irailaren 4ra arte.

**Edukia:** Pinturak, pastelak eta marrazkiak.

Agnieszka Dacak 2008ko Adour-Bidasoa Pintura Lehiaketa irabazi zuen. Krakoviako

Arte Ederretako akademian Pintura diplomaduna da. Mundu zabaleko hainbat hiritan bakarkako zein taldekako erakusketetan parte hartu du.



## Menchu Gal aretoan erakusketa berria



Menchu Gal aretoan erakusketa berria antolatu da. Bertan, Menchu Galen eta Javier Alkainen erretratuak ikusgai dira.

## Egipto Oiasso museoan



**EGIPTO: BEGIRADA ERROMANTIKOA** erakusketa.

**Noiz:** ekainaren 24tik azaroaren 20ra.

**Non:** Oiasso Museoan

**Ordutegia:** asteartetik larunbatera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

## Tailerrak Oiasson

Oiasso Museoak *Egiptoko Misterioak* izenburuko haurrentzako tailerrak antolatu ditu.

- **Ebaki, itsatsi, modelatu, margotu... hara Nofret da eta!** Hartzailleak: 8-12 urte bitarteko haurrak. Iraupena: 60'

- **Osirisen mitoa eta Hildakoen Liburua.** Hartzailleak: 4-12 urte bitartekoak.

Iraupena: 45'.

- **Senet-ean jolas-tuko gara?**

Hartzailleak: 8-12 urte bitartekoak. Iraupena: 30'

- **Idazkera hieroglifikoa.** Hartzailleak: 4-12 urte bitartekoak. Iraupena: 45'  
2 jarduera, 3 euro, eta 3 jarduera, 4 euro.



**Orrialde hauetako informazio guztia, zabalago, [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte) webgunean.**

## Lehiaketak



- **ADOUR-BIDASOA MARGO LEHIAKETA** antolatu du Irungo Udalak. **Baldintzak:** 18 urte edo gehiago izatea. Obra bakarra aurkez daiteke. **Sariak:** Irabazleari, 2.500 euro; artista gazte lan onenari, 400 euro. **Epea:** Obrak irailaren 6tik 11ra bitartean Amaia KZn entregatu behar dira.

- **IRUNGO ERREPUBLIKARREN** Elkarteak argazki lehiaketa antolatu du. **Gaia:** Frankismoaren ondorioak. **Epea:** Urriak 10. [www.asociacionrepublica-nairuensa.org](http://www.asociacionrepublica-nairuensa.org)



## Lana



- **OSAKIDETZARAKO 2.600 LANPOSTU. ENPLEGU ESKAINTZA PUBLIKOA 2011.** Uztailean espezialitate hauetarako deialdia egin da: pediatria, ginekologia eta erradiodiagnostikoa. Irailean: Familia medikua. Abenduan: Erizaintza, erizain laguntzailea, administrari laguntzailea eta jagolea.

## Ikastaroak



- **BEGIRALE-IKASTARO TRINKOA IRUNEN**, Urtxintxa eskolak antolatua. **Epea:** 2011/9/15. Iraupena: 200 ordu teoriko, 25 lanordu 120 ordu praktiko. Irailetik otsailera.



**Baldintzak:** 18 urte beteta edukitzea.

Izen ematea:

[www.urtxintxa.org/aisia/de/matrikulazioa](http://www.urtxintxa.org/aisia/de/matrikulazioa) web orrian edo Urtxintxa eskolaren egoitzan irailaren 1etik 15era. **Prezioa:** 480 €.

## Bekak



eman ta zabal zazu



- **UNIBERTSITATE ETA GOI-MAILA-KO IKASKETETARAKO BEKAK.**

- Eskabidea Interneten bidez SOILIK egin daiteke. - Epea: Irailak 30.

Informazio guztia [www.hezkuntza.net](http://www.hezkuntza.net) web gunean.



Gipuzkoa TB Txingudik  
Bidasoaldean % 100eko  
estaldura du

Kontsultak edo instalazioak  
egiteko:

**Ilargi Antenak**

**943 64 50 33**



**txingudi**



**Biltegi eta bulegoak:**  
Txirrri Maleo 4 - 20100 Errenteria

**Dendak:**  
San Francisco, 15 - 20002 Donostia  
San Francisco, 24 - 20002 Donostia  
Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia  
Isabel II, 15 - 20011 Donostia  
Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria  
Avda.de Ezkiaga, 1A-1B - 20200 Baosain  
Leizeaga, 3 - 20570 Bergara  
Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun

**Erka Osagai Elektrikoak S.L.**  
c\ Salvador Etxeandia, 6 Behea  
Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48  
20304 Irun



**- Industriako eta etxeko instalazio elektrikoak biltegia.**  
**- Lanpara erakusketa.**